

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

1117

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 20koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen da 2022. ekitaldian ekintza humanitarioko proiektuei emandako dirulaguntzen zerrenda, eta deialdiaren funtsak agortu direla jakinarazten da.

Ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuak (ekainaren 26ko EHAA, 120 zk.) ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen ditu.

2022ko apirilaren 11n, EHAAn argitaratu zen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2022ko martxoaren 11ko Ebazpena, ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen deialdia egiten duena 2022. ekitaldirako.

Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituen ekainaren 18ko 90/2019 Dekretuaren 17.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da dirulaguntzak emateko ebazpena; hala ere, banan-banan jakinaraziko zaie esleipenaren ebazpena onuradun diren erakundeei.

Hori dela eta, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Erantsitako eranskinean jasotakoaren arabera, argitara ematea dirulaguntzen eta erakunde onuradunen zerrenda, 2022. ekitaldirako ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen deialdia egiten duen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariaren 2022ko martxoaren 11ko deialdiaren Ebazpenarekin bat.

Bigarrena.– Ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzen deialdi horretara bideratutako funtsak agortu direla jakinaraztea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 20a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2023ko martxoaren 1a, asteazkena

ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Herrialdea	Puntuak	Dirulaguntza (euro)
PRE-2022EH/0001	Alboan Fundazioa	Ongizate psikosoziala, gizarte-kohesioa eta kalitatezko hezkuntza sustatzea itzulera-prozesuan dagoen Burundiko komunitate errefuxiatuentzat eta Tanzanian dagoen Kongoko komunitate errefuxiatuentzat	Tanzania	63	200.000,00
PRE-2022EH/0002	Mundi farmazialariak	Osasuna eta, sexu- eta ugalketa-eskubideak babestea gaixotasun epidemikoen agerraldien testuinguruan eta, jarduera armatuaren luzapenaren testuinguruan Benin, Ipar Kivu eta Kongoko Errepublikak Demokratikoan	Kongoko Errepublika Demokratikoa	65	200.000,00
PRE-2022EH/0003	Alboan Fundazioa	Babes humanitario integrala ematea migratzaile behartuei eta barne-desplazatuiei Venezuelian	Venezuela	64	199.999,99
PRE-2022EH/0004	Espainia ACNUR elkarteak	Txad-en errefuxiatutako Sudango biztanleentzako babesa eta kalitatezko osasun-zerbitzuak eskuratzea	Txad	51	200.000,00
PRE-2022EH/0005	Mundi farmazialariak	Kyaka II-ko (Uganda) errefuxiatuen erresilientzia-gaitasuna eta osasun-eskubidea sustatzea	Uganda	63	199.972,50
PRE-2022EH/0006	Unicef Fundazioa-Espainiako Batzordea	Hezkuntza segurua, inklusiboa eta kalitatekoa eskuratzeko aukera ematea Gaoko eskuatdeetan krisi humanitarioek eragindako haurrei	Mali	53	200.000,00
PRE-2022EH/0007	Espainia ACNUR elkarteak	Nigerian errefuxiatutako Kamerungo biztanleentzat, babesa eta kalitatezko osasun-zerbitzuak eskuratzea	Nigeria	53	200.000,00
PRE-2022EH/0008	Fundación Save the Children	Haur migratzaileak babestea Ciudad Juárez eta Tijuano atarpetxeetan, Mexikoko iparraldeko mugan	Mexiko	54	200.000,00
PRE-2022EH/0009	Bakearen aldeko Lankietzaren Batzarra	Kokatutako lotura-estrategia, okupazioaren mendeko palestinarren eskubideak eta duintasuna modu integratuan babesteko Nazioarteko Eskubide Humanitarioaren arabera	Palestinako Estaturia	72	200.000,00
PRE-2022EH/0010	Ayuda en Acción fundazioa	Erantzun humanitarioa sendotzea, Mexikon mugikortasunean dauden emakumeen aurkako genero-indarkeria prebenitzeko, atatzeko eta arintzeko	Mexiko	61	199.999,98

2023ko martxoaren 1a, asteazkena

Espedientea	Erakunde eskatzailea	Izenburua	Hertialdea	Puntuak	Dirulaguntza (euro)
PRE-2022EH/0011	UNRWAKo Espainiako Komitea elkarteak	Oimarrizko elikadura Palestinako errefuxiatuen biziraupena bermatzeko, Gazako zerrindaren gaineko azken ofentsiba militarren ondoren	Palestinako Estataua	54	200.000,00
PRE-2022EH/0012	UNRWAKo Espainiako Komitea elkarteak	Osasun-puntuak Zisjordanian isolatutako komunitate ahulenen osasunerako eskubidea bermatzeko	Palestinako Estataua	59	200.000,00
PRE-2022EH/0013	Lankidetzarako eta Garapenerako Zabalketa Elkarteak	Krisi humanitarioak eragindako Embras komunitateentzako arreta eta babes Chocoko Valle ibaian, behartutako desplazamendutik itzuli ondoren	Kolonbia	61	199.999,99
PRE-2022EH/0014	Espainiako Gurutze Gorria	Kalitateko osasun-arreta ematea ziurtatu da Babilyeh-eko harrerako errefuxiatu eta tokiko biztanleriari (Saida eskualdea, Libano)	Libano	51	200.000,00
PRE-2022EH/0015	Fundación Mundubat-Mundubat Fundazioa	Eskeletako gosarien programa; haurren nutrizio-laguntza bermatuz Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan	SEAD	51	200.000,00
PRE-2022EH/0016	Unicef Fundazioa-Espainiako Batzordea	Arreta integrala ematea talde eta indar armatuetatik askatutako haurrei eta Hego Sudango harrera-komunitateetako haur kalteberei	Hego Sudan	52	199.999,30
PRE-2022EH/0017	Arabako SEAD-en Lagunen Elkarteak	Elikadura segurtasuna Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan Tindufen, Aljeria	SEAD	59	199.999,95
PRE-2022EH/0018	Oxfam Intermón Fundazioa	Bizitza eta lurraldea zaintzea: geratzeko asmoa duten nerabe, gazte eta emakume migratzaileek eta harrera-komunitateetakoek babesa, bizitzaren zaintza eta lurraldea kudeatzen dituzte Arauca departamentuan, Kolonbian	Kolonbia	62	197.739,86
PRE-2022EH/0019	Nazioarteko Elkartasuna-Solidaridad Internacional	Emakume errefuxiatuak ahalduntzea laguntza mediko eta psikosozialaren, eta hezkuntzako laguntzaren bidez, Libanoko hegoaldeko hamar kokaleku inforamletan	Libano	61	199.999,69
PRE-2022EH/0020	Mundu Bakean elkarteak	Laguntza humanitarioa hobetzea iragaitzako edo asiloa bilatzen ari diren migratzaileei, erakundeen arteko koordinazio hobetuaren bidez	Guatemala	58	199.600,61